

HARRIKADIE

Poesia egunetako berripapera Ea-Bizkaia

2014ko uztailaren 11tik 13ra



Hamaika eta bat Ea poesiari

Karmelo Landa, Laura Mintegi, Andoni Egaña, Iraia Elias, Oier Guillan, Ainhoa Alberdi, Rafa Rueda, Naia Membrillera, Iban Urizar, Alain Urrutia, Eider Rodriguez, Koldo Izagirre, Mikel Etxaburu, Mariluz Esteban, Jule Goikoetxea, Luis Garde, Felipe Juaristi, Joseba Irazoki, Imanol Epelde, Laida Azkona, Iratxe Retolaza, Danele Sarriugarte, Karlos Aranzegi, Ima Ubeda, Joni Ubeda, Iñigo Astiz, Mikel Ayerbe.

EAP¹¹ESIAEGUNAK

www.eakopoesiaegunak.com



HEA
"Herrijerri emon arnasa"
Kultura Taldea · Ea

gabriel arestiren
etxea

Uztailaren 11, barikua

20:00etan, Eskolondon. Hitzaldia
*GABRIEL ARESTIREN
HARRI ETA HERRI:
NONDIK DATOR HARRIA?*
Karmelo Landa eta Laura Mintegi

22:30ean, Eskolondon. Sentikaria
GABRIELEN LEKUA
Andoni Egaña, Iraia Elias, Oier Guillan,
Ainhoa Alberdi, Rafa Rueda,
Naia Membrillera, Iban Urizar eta Alain
Urrutia



Karmelo Landa



Laura Mintegi



Andoni Egaña



Iraia Elias



Oier Guillan



Ainhoa Alberdi



Rafa Rueda



Naia Membrillera



Iban Urizar



Alain Urrutia

Uztailaren 12a, zapatua

11:00etan, Eskolondon. Hitzaldia
*ITSASOA DA BIDE
BAKARRA*
Eider Rodriguez

13:00etan, Talan. Errezitaldia
PARISEN BIZI NAIZ
Koldo Izagirre

15:00etan, Bedaronan
Herri-bazkaria

17:00etan, Bedaronan. Errezitaldia
IDAZLEAK IRAKURLE
Mikel Etxaburu, Mariluz Esteban, Jule
Goikoetxea, Luis Garde eta Felipe Juaristi
MUSIKARIA: Joseba Irazoki

20:00etan, Eskolondon. Kontzertua
ETXEPARE RAP
Imanol Epelde

22:30ean, Eskolondon. Dantzaldia
*MU-TO: TXINARAINO
TUNEL BAT ZULATU*
Laida Azkona

23:30ean, Eskolondon. Kontzertua
OSO BANDA
Joseba Irazoki



Eider Rodriguez



Mikel Etxaburu



Joni Ubeda



Karlos Aranzegi



Ima Ubeda



Koldo Izagirre



Mariluz Esteban



Luis Garde



Iñigo Astiz



Mikel Ayerbe

Uztailaren 13a, domeka

11:00etan, Eskolondon. Hitzaldia
*ARESTIREN IMAJINARIO
POETIKOA ETA GENERO-
ERAIKUNTZAK*
Iratxe Retolaza eta Danele Sarriugarte

13:00etan, Moilan. Kontzertua
KANTU BAT ZURE MINARI
Bide Ertzean

15:00etan, Natxituko bolatokian
Herri-bazkaria

17:30ean, Natxituan. Errezitaldia
HONDAKINDEGIA
Iñigo Astiz eta Mikel Ayerbe



Felipe Juaristi



Joseba Irazoki



Imanol Epelde



Laida Azkona



Iratxe Retolaza



Danele Sarriugarte



Gabriel Arestiren Harri eta Herri: Nondik dator harria?



Harri eta herri liburua argitaratu zenetik 50 urte bete direnean, Gabriel Arestiren *Harriaren zikloa* deitu izan denaren ezagutzarako klabeak argitu guran, hitzaldi-elkarrizketa, Karmelo Landa eta Laura Mintegiren artean.

HITZALDIA

Karmelo Landa eta Laura Mintegi
20:00etan
Eskolondon
Uztailaren 11 (barikua)




Sentikaria: Gabrielen lekua

Gabriel Arestiren pertsona eta lana eguneratzea du helburu sentikari honek. Lekuak hartu dituzte horretarako ardatz: Bilbo, Baiona, Arantzazu, Ea... Eta haren izazaren zein obraren alderdirik garrantzitsuenak leku ezberdinekin lotuko dituzte: haurtzarora, euskara ikasteko erabakia, justizia sozialarekiko kezka, obra literarioa, gutun trukeak, euskara batuaren sorrera, ideologia... Arestiren obraren pasarteekin batera, sortzaileek beren beregi sorturiko lanek osatuko dute sentikaria; eta hainbat kultur adierazpide elkartuko dira oholtzan: musika, bertsolaritza, deklamazioa, ikus-entzunezkoak...



SENTIKARIA

Andoni Egaña, Iraia Elias, Oier Guillan, Ainhoa Alberdi, Rafa Rueda, Naia Membrillera, Iban Urizar eta Alain Urrutia
22:30ean
Eskolondon
Uztailaren 11 (barikua)



Itsasoa da bide bakarra



Joseba Sarrionandiaren lanetan, itsasoa ez da baliabide koloretsu huts bat, ez eta *atresko* lanak betetzen dituen paisaia —batzuetan basati, beste batzuetan etsipenezko— bat ere, bere obren muin-muinean txertaturik dagoen gaia baizik, batzuetan metafora, beste batzuetan sinbolo esanahiz kargaturikoa. Obra guztien artean osatutako amaraunetik, itsasoaren esanahi ez literalak erartortzen dira, zeinak ezinbestekoak diren Sarrionandiaren obraren sakoneko dimentsioak azalera ekartzeko. Horiek horrela, Joseba Sarrionandiaren 1981-2001 bitarteko lanen irakurketa proposamen bat eskainiko digu Eider Rodríguezek.




HITZALDIA

Eider Rodríguez
11:00etan
Eskolondon
Uztailearen 12a (zapatua)

HERRI-BAZKARIA

15:00etan
Bedaronan
Uztailearen 12a (zapatua)



Parisen bizi naiz



Gentrifikazioaz ari zaigu Izagirre *Parisen bizi naiz* liburuan. Nola Antigua bezalako langile auzoguneetan, inoiz izan ziren fabriken arrastorik dagoeneko ez den, burgesia ertain bat kokatu delarik berriro maoizko prakak nekez ikusiko dituzten plazetan. Turismo kulturala eta turismo gastronomikoa. “*Perla polit biribila/dendarien biri hila*”. Eta turismoak morrontza dakar, inbasiboa baita. Turismo horren menara suntsitu dute Donostian popularra dena edo langileen munduarekin zerikusia duen guztia. Bitartean, zelatari dugu “*bekatuak banatzen dizkeigun sacré-coeur ankerru*”, Urgulleko begia. Donostiak bere historia asumitu beharra dauka, eta zer izan nahi duen erabaki, nortasunik gabe geldituko ez bada.

Maitazoro

Larrian edo gezurrean etortzen banaiz
bera dut gerizpea
burua neke mututu banaiz
bera dut askatu nauen berba
gozo zoro maitasoro
ezpain erreok hezetu dituen iruntza

zakurraren salara bidali izan dudan arren
pazientzia milikatu ditu
ezagutzen ez nituen neure bazterñoak
xuxurlaz eta txiliez egina da
gozo zoro maitasoro
lotzen gaituen estekaren zuntza

atsegintasunik eman ez diodanean ere
larrutan besterik egin ez diodanean ere
ordainik gabe eskaini izan dit
hil ala biziko jokoan
gozo zoro maitasoro
bere biluzi beroaren oturuntza

jelostu plantak egin izan dizkit
berba hezeak asmatuz esaldi zentzubeteak
hanpatu egiten nau
niretzat hiltzen eta pizten da guztiz
gozo zoro maitasoro
aldiari leialeko huntza

oinarrizko legeak zehartuz
zorrotzeneko arauak apurtuz
ohikotasun jatorrak baztertuz
gozo zoro maitasoro
bihurtu izan du bide
trabatzen ninduen iluntza

jakinaren gainean ez banengo bezala
eman izan didate beraren berri
patux arlote motz axola zait bost
hazi egiten nau gainez eragiten
zenbatenaz lokatzago dut hanbatenaz
[aratzago

bere kausaren gerlaria naiz bera da
gozo zoro maitasoro
eraiki nauen ooren funtsa

maitemindua bi mila urte
hiru mila urte eduki dut maitemindua
arte guztiak ikasten sortuko nintzenerako
limurtasun guztiak nire egarrira isurtzeko
[irritsean

iraun du bost mila urte zain
gozo zoro maitasoro
haragian haragi odolodol da
gogait eragiteraino neure
hizkuntza

Koldo Izagirre



POEMA ERREZITALDIA

Koldo Izagirre
13:00etan
Talan
Uztailearen 12a (zapatua)



Idazleak irakurle



Mikel Etxaburu (Ondarroa, 1969). Gazte-gaztetatik literaturak eta hizkuntzak erakarrita, Euskal Filologian doktoratu zen orain urte batzuk. Gaur egun, Mondragon Unibertsitateko HUHEZI fakultatean egiten du lan. *Hodeiak zapatetan* da argitaratu berri duen bigarren poema-sorta. Lehenengoa *Zu zara orain txoria* izan zen.

Mari Luz Esteban Burgosko herri batean jaio zen (Pedrosa de Valdeporres, 1959). Gizarte antropologia irakaslea da Euskal Herriko Unibertsitatean eta hainbat argitalpen ditu egindako ikerketen ingurukoak, hala nola, *Antropología del cuerpo. Género, itinerarios corporales, identidad y cambio* (Bellaterra, 2004) eta *Crítica del pensamiento amoroso* (Bellaterra, 2011). Iaz bere lehen poema liburua argitaratu zuen, *Amaren beriotzak libreago egin ninduen* (Pamiela, 2013).

Jule Goikoetxeak (Donostia, 1981) hamasei urterekin plazaratu zituen lehen poemak (Taldea Plastikoa, 1997), baina bere lehen poesia liburua, *Tractatus*, aurtan argitaratu du (Susa, 2014). Filosofian doktorea eta zientzia politikoko irakaslea da. Politikako Cambridgeko aldizkari editorea da, eta Euskal Herriko hainbat egunkaritako kolaboratzailea.

Luis Gardek (Iruña, 1961) Filologia ikasi zuen. Zazpi poema liburu argitaratu ditu: *Oihan nabarra* (BBK-Euskaltzaindia, 2004), *Haize hegoaren aroak* (Pamiela, 2007), *Gertakarien urtzeta* (Alberdania, 2008), *Unplugged* (Kutxa, 2009) *Maizter arrotza* (Erein, 2013), *Trenen abiadura* (Pamiela, 2014) eta *Eremuen birkalifikatzea* (Pamiela, 2014).

Felipe Juaristi (Azkoitia, 1957) idazle eta kazetaria da. Hogeita bost baino gehiago dira argitaratutako liburua. Horien artean aipatzekoak dira poesia arloan: *Denbora, nostalgia* (1985), *Hiriaren melankolia* (1987), *Galderen geografia* (1996) eta *Piztutako Etxea* (2014). Bere obra gazteleraz, ingelesez, italieraz eta frantsesez itzulita dago. Poesiaz gain, aipagarriak dira honako lan hauek: *Animalien inauteria* (1999), *Airezko emakumeak* (2003) eta *Ez da gaua begietara etortzen* (2007).

Joseba Irazoki, jakin-mina bere baitan errota duen joera askotariko gitarrista polifazetikoa, konposizioan ez ezik inprobisazioaren munduan ere gogo biziz barneratzen dena. Hainbat musikarirekin gitarra jole fin eta irudimentsu gisa luzaroan ibili da Joseba: *Mikel Erentxun*, *Atom Rumba*, *Xabier Montoia*, *Petti*, *Anje Dubalde*, *Bide ertzean*, *Terry Lee Hale*, *Maixa* eta *Ixiar*... Kantugile eta abeslari moduan agertu zen duela urte batzuk *Onddo* bere pop-rock taldearekin eta *Do* inprobisazio proiektuarekin.

POEMA ERREZITALDIA

Mikel Etxaburu, Mariluz Esteban, Jule Goikoetxea, Luis Garde eta Felipe Juaristi

MUSIKARIA: Joseba Irazoki

17:00etan

Bedaronako plazan

Uztailaren 12a (zapatua)



Etxepare RAP

Literatura, Rap oinarrietan kantatua. Bernard Etxeparek 1545ean argitaratu zuen euskarazko lehen liburutik abiatuta gaur egunera artekoa. Axularrek, Oihenartek eta Mirandek zer kontatu asko dutelako gaur egun ere. *Etxepare RAP*: musika bidaia bat gure konstelazio familiarretara.



KONTZERTUA

Imanol Epelde

20:00etan

Eskolondon

Uztailaren 12a (zapatua)

DESIRA

Dena hartzen du desirak bere baitan,
aingeru, demonio eta gizaki,
kimera, utopia, nahi eta ametsak,
isiltasuna hausten duen barrea;

iturri garbitik sortzen den hitza;
maitaleen ibilera lasaia;
elkarrengandik urruti zeudela
uste izan zutenen beso luzea;

Jainkoa eta haren gorabeherak.
Dialektika, armonia, xakea;
zientzia, konputagailua, erlojua;

Infinitua da, sar badaiteke ere
laztan eta agur dagien eskuan,
izar ibiltari den begiradan.

Felipe Juaristi

EMAKUME BAT SOFA BATEAN ETZANDA

Bakarrik da bere sofan bakarrik jaio ez dena, bakarrik bizi ez dena.
Edozein asteburutan, zinetik edo ordenagailutik bueltan.

Adiskide batek aspaldi esana zion: sofa honetan ez dut zu baino ikusten.
Erre egin zuen, baina asteetara onartu zuen halaxe zela. Aski, egoki ere badela.

Gauean lo gelditu da telebistari begira. Itzartzean ohera abiatu da
balantzaka. Itsas urak bainatu ditu haren amets gazi-gozoak.

Emakume bat sofa batean etzanda. Eszena bat aukeratu beharko balu.

Mariluz Esteban

FAMILIARTEAN

Biolentziaren
ordena sinbolikoa
aita da.

Amaren
ordena sinbolikoa
biolentzia da.

Jule Goikoetxea

BETI DA NEGUA SORLEKUTIK PARTITZEN DENARENTZAT

Aitaren etxea, amaren sua.
Aitaren sua, amaren etxea.
Amaren sua, aitaren errautsa.
Aitaren solasa, amaren isilaldia.
Aitaren makila, amaren erratza.
Aitaren zakurrak, amaren antzarak.
Aitaren jarlekua, amaren jostorratza.
Aitaren edalontzia, amaren eskuzapia.
Aitaren eskua, amaren aienea.
Orain munduan iluntzen du;
elurrezkoa da bidea.

Luis Garde

HARAINDI

Hemen basazkoa da denbora,
barakuiluen ibiliaren modukoa.
Hemen miopeak gara denok,
errepublika berririk
eraikitzeke asmorik gabe nabil,
ez naiz Robinson Crusoe,
burusoilegia naiz Ostiral izateko.
Hemen ez naiz erreboltaz oldartzen
gauero atea ixten didaten polizien kontra,
nahiago dut koldar jokatzeko jarraitu,
nahiago dut begi bustiak eskuetan bildu eta
poltsan sartu didazun trikotarekin itsasoa sikatu,
barakuiluek paretak laztantzen dituzten bezala.
Hemen gatibatuta gauzkaten paretez haraindi
Jaurtitzen ditugu paperezko hegazkin zuriak,
mailuak dunbaka, betazal hertsietan lur-hartzeko.
Hemen gatibu gauzkaten sarrailen zuloetatik
arnas hartzen jarraitzeko.

Mikel Etxaburu

Mu-To: Txinaraino tunel bat zulatu



Mu-To: Txinaraino tunel bat zulatu emanaldian, Azkonak ideia baten bueltan egiten du dantza: ezinezkoa da lehenaldia izan zen moduan gogoratzea, oroitzea beti baita orainaldian egiten den eraikin arrazionala. Abiapuntu hori hartuta, bidaia bat proposatu nahi dio ikusleari, norberaren bizipenetan hasi eta fikzioraino, oroitzenaren eraikuntzaraino doan bidaia. Sortzera bultzatu nahi ditu ikusleak. “*Ezin badugu lehenaldia objektiboki jaso, asma dezagun*”. Eta bera bezain protagonista nahi du ikuslea. Dantzariaren eta ikusleen arteko nahasketa horretan, memoria pertsonala eta kolektiboa lotu nahi ditu.

DANTZA-EMANALDIA

DANTZARIA: Laida Azkona
22:30ean
Eskolondon
Uztailearen 12a (zapatua)



Oso banda

Oraingoan bakarka dator, *one man band* formatuan. Kantatzeaz gainera, hainbat soinuren efektuak eta programazioak manciatuko ditu, eta gitarrei, harmonikari eta bonboari hitz eginaraziko die. Zein izanen den azken helburua? Erritmo eta soinuen anabasa neurtu bat sortzea, hainbat kalibretako konposizio genuinoak dispartuz. Folka, bluesa, psikodelia eta tresnen esperimentazioa: proposamen artistiko bikain bat, harrigarria eta sailkaezina aldi berean.



KONTZERTUA

Joseba Irazoki
23:30ean
Eskolondon
Uztailearen 12a (zapatua)



Arestiren imaginario poetiko eta genero- eraikuntzak

Gizontzeko (andretzeko) garaiaz dihardu Arestik *Harrizko herri hau* bildumako “Gizonari geldi-arazitzeko bertsoak” poeman. Lelo horretatik tira eginez, Arestiren imaginario poetikoak nolako gizontzeak eta nolako andretzeak proposatzen dituen aztertuko dute saio honetan, betiere imaginario poetiko zein kolektibo hori poetaren garaian kokatuz, alegia, 60ko eta 70eko hamarkadetako testuinguru poetiko eta politikoan.




HITZALDIA

Iratxe Retolaza eta Danele Sarriguarte
11:00etan
Eskolondon
Uztailaren 13a (domeka)



HERRI-BAZKARIA

15:00etan
Natxituko bolatokian
Uztailaren 13a (domeka)



Kantu bat zure minari

Bide Ertzeanekok miresten duten poetari gorazarrea egin zioten lehen disko luzean. Jose Luis Otamendiren poesia da, hain zuzen, *Zure minari* (Gaztelupeko Hotsak, 1999) diskoaren ardatz nagusi eta bakarra. Baina poetaren eta taldearen arteko harremana ez zen lan horretan amaitu. Alderantziz. Lankide-tzak segida izan zuen ondorengo diskoetan ere. Tolosako taldearen joera, ordea, haratago doa. Bide Ertzeanen kantutegian erreparatuta, bestelako autoreak ere aurki daitezke: Mikel Ibaruren, Iñigo Aranbarri, Jon Benito, Itxaro Borda, Kirmen Uribe, Koldo Izagirre, Joxean Artze... Poeta horiek guztiek Bide Ertzean taldearen baitan utzi duten arrastoaren erakusgarri izango da *Kantu bat zure minari* izeneko saioa: Eako Poesia Egunetarako bereziki prestatu duten kantaldi akustikoa.



KONTZERTUA

Bide Ertzean
13:00etan
Moilan
Uztailaren 13a (domeka)



Hondakindegia



Mikel Ayerbek eta Iñigo Astizek eszenarako birziklatu dituzte bigarrenaren *Baita hondakinak ere* (Susa, 2012) liburuko poemak. Musikaren laguntzarik gabe, antzerkiaren, poesiarren eta bideoen bitartez ikus-entzunezko hibrido bat osatu dute Ayerbek eta Astizek, lurra oinarri harturik. Liburuan bezala, nahasian joango dira etxekoa eta kalekoa; sukaldeko solasaldiak eta manifestazioetako aldarrikapenak; pribatua eta publikoa; gastronomia eta lorezaintza.

POEMA ERREZITALDIA

Iñigo Astiz eta Mikel Ayerbe
17:30ean
Natxituko bolatokian
Uztailaren 13a (domeka)

